

IDENTIFIKAZIORAKO ETA SINADURARAKO BALIABIDE ELEKTRONIKOAK ERABILTZEKO  
TERMINOAK ETA BALDINTZAK

Bertsio zkia.: v 2.5

Data: 2020ko azaroaren 3a

---

© Izenpe 2020

Dokumentu hau Izenperena da. Osotasunean soilik erreproduzi daiteke.



## AURKIBIDEA

<b>1</b>	<b>SARRERA</b>	<b>4</b>
<b>2</b>	<b>HARREMANETARAKO DATUAK</b>	<b>5</b>
<b>3</b>	<b>DEFINIZIOAK</b>	<b>6</b>
<b>4</b>	<b>ZIURTAGIRI MOTAK, BALIOZKOTZEKO ETA ERABILTZEKO PROZEDURA</b>	<b>8</b>
4.1	Hierarkia, oinarrizko CA 2007 (CN=Izenpe.com)	8
4.2	Hierarkia, oinarrizko CA 2020 kualifikatuak (CN=ROOT CA QC IZENPE)	12
4.3	Hierarkia oinarrizko CA 2020 kualifikatu gabeak (CN= ROOT CA NQC IZENPE)	14
<b>5</b>	<b>BALIABIDE ELEKTRONIKOEN ERABILERA</b>	<b>15</b>
5.3	ERABILERA EGOKIAK,	15
☐	KAUTOTZEA,	15
☐	SINATZEA,	16
5.4	BALIABIDEEN ERABILERA DEBEKATUAK	16
☐	KAUTOTZEA	16
☐	SINATZEA	16
<b>6</b>	<b>MUGAK KONFIANTZAN</b>	<b>18</b>
<b>7</b>	<b>BETEBEHARRAK</b>	<b>19</b>
7.3	IZENPErenak,	19
7.3.1	BETEBEHAR OROKORRAK	19
7.3.2	IDENTIFIKAZIOKO BALIABIDE ELEKTRONIKOAK JAULKITZEN DITUEN ENTITATEA DEN ALDETIK	20
7.3.3	SINADURAKO BALIABIDE ELEKTRONIKOAK JAULKITZEN DITUEN ENTITATEA DEN ALDETIK	20
7.5	ZIURTAGIRIAREN HARPIDEDUNAREN BETEBEHARRAK	22
<b>8</b>	<b>ERANTZUKIZUNAK</b>	<b>25</b>
<b>9</b>	<b>APLIKATZEKOAK DIREN AKORDIOAK, ZIURTAPEN PRAKTIKEN DEKLARAZIOA ETA ZIURTAPEN-POLITIKAK</b>	<b>28</b>
<b>10</b>	<b>ITZULTZEKO POLITIKAK</b>	<b>28</b>
<b>11</b>	<b>DATU PERTSONALAK BABESTEA</b>	<b>28</b>



<b>12</b>	<b>APLIKATZEKO DEN LEGERIA. GATAZKAK EBAZTEKO MEKANISMOAK</b>	<b>28</b>
<b>12.1</b>	<b>Aplikatzekoa den araudia</b>	<b>28</b>
<b>12.2</b>	<b>Erreklamazioak eta auzien ebazpena</b>	<b>28</b>
<b>13</b>	<b>AUDITORIAK, ZIURTAPENAK ETA ZIURTAPEN-AGINTARITZEN ETA BILTEGIEN KONFIANTZAKO ZIGILUAK</b>	<b>29</b>
<b>14</b>	<b>BERTSIOEN KONTROLA</b>	<b>30</b>



## 1 SARRERA

---

Dokumentu honen xedea da deskribatzea *Ziurtapen eta Zerbitzu Enpresa-Empresa de Certificación y Servicios, Izenpe SAK* (aurrerantzean, Izenpe) zer terminotan eta baldintzatan jaulkitzen dituen identifikaziorako eta sinadura elektronikorako baliabideak.

Izenpe konfiantzako zerbitzuen egile kualifikatutzat jotzen da, betiere *identifikazio elektronikoari eta barne-merkatuko transakzio elektronikoetarako konfiantzako zerbitzuei buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko uztailaren 23ko 910/2014 arautegiak —1999/93/EE Zuzentaraua indargabetzen duenak—* ezarritakoaren babesean, aurrerantzean eIDAS.

Ildo horretatik, honetarako baliabideak jaulkitzen ditu

➤ **Identifikaziorako,**

Sinadura elektronikoa oinarritzen diren identifikazio-baliabideez gain, BaK eta BaQK baliabideak jaulkitzen ditu. Baliabide horiek pertsona fisiko bat identifikatzeko aukera emango dute erreferentziarako zenbaki baten eta pasahitz baten bidez —erreferentziarako zenbakia bat etorriko da erabiltzailearen NAN/AIZren zenbakiarekin—.

BaQK baliabideak gainera barnean hartzen du: 16 posizioko koordinatu-joko bat edo erabiltzailearen telefono mugikorrera SMS bidez bidaliko den erabilera bakarrek kode bat.

➤ **Sinadurarako,**

Sinaduraren ondorioetarako, Izenpek askotariko ziurtagiri elektronikoetan oinarritzen diren baliabideak jaulkitzen ditu hainbat euskarritan, betiere dagokion *Berariazko politikan* eta *Ziurtapen Praktiken Deklarazioan* zehaztutako berezitasunen arabera.

Dokumentu hau ETSI EN 319 411-1 B eranskinaren eskakizun teknikoen arabera sortu da: *“Policy and security requirements for Trust Service Providers issuing certificates; Part 1: General requirements”*.

Ez ditu inola ere ordezkatzeko Ziurtapen Praktiken Deklarazioa eta ziurtagiriaren politikak, [www.izenpe.eus](http://www.izenpe.eus) web-gunean eskuragarri daudenak.



## 2 HARREMANETARAKO DATUAK

---

Zerbitzugilearen izena	Ziurtapen eta Zerbitzu Enpresa-Empresa de Certificación y Servicios, Izenpe SA
Posta-helbidea	Tomas Zumarraga Dohatsuaren kalea, 71-1. 01008 Vitoria-Gasteiz
Posta elektronikoko helbidea	<a href="mailto:izenpe@izenpe.eus">izenpe@izenpe.eus</a>
Telefonia	900 840 123 / 945 01 62 90



### 3 DEFINIZIOAK

---

- **Identifikazio elektronikoa**, pertsona baten formatu elektronikoko identifikazio-datuak erabiltzeko prozesua —datu horiek pertsona fisiko edo juridiko jakin bat ordezkatzen dute, edo pertsona juridiko bat ordezkatzen duen pertsona bat—.
- **Identifikazio-elektronikoko baliabideak**, pertsona baten identifikazio-datuak biltzen dituen unitate materiala eta/edo immateriala, on line zerbitzuetan kautotzeko erabiltzen dena.
- **Kautotzea**, pertsona fisiko edo juridiko bat edo formatu elektronikoko datuen jatorria eta integritatea modu elektronikoa identifikatzeko aukera ematen duen prozesu elektronikoa.
- **Sinadura elektronikoa**, sinatzaileak sinatzeko erabiltzen dituen formatu elektronikoko datuak, beste datu elektronikoko batzuei erantsiak edo horiekin modu logikoan lotuak.
- **Sinadura elektroniko aurreratua**, eIDAS arauaren 26. artikuluan aintzat hartzen diren betekizunak betetzen dituen sinadura elektronikoa.
- **Sinadura elektroniko kualifikatua**, sinadura elektronikoa sortzeko gailu kualifikatu bidez sortzen den eta sinadura elektronikoko ziurtagiri kualifikatu batean oinarritzen den sinadura elektroniko aurreratua.
- **Sinadura elektronikoko ziurtagiria**, zigilu bat baliozkotzeko datuak pertsona juridiko batekin lotzen dituen eta pertsona horren izena edo goitizena berresten duen deklarazio elektronikoa.
- **Sinadura elektronikoko ziurtagiri kualifikatua**, konfiantzako zerbitzuen egile kualifikatu batek jaulkitako sinadura elektronikoko ziurtagiria, eIDAS araudiaren I. eranskinean ezarritako betekizunak betetzen dituena.
- **Konfiantzako zerbitzuen egilea**, konfiantzako zerbitzu bat edo gehiago egiten dituen pertsona fisikoa edo juridikoa, konfiantzako zerbitzuen egile kualifikatu gisa zein kualifikatu gabe gisa egiten dituena.
- **Konfiantzako zerbitzuen egile kualifikatua**, konfiantzako zerbitzu bat edo batzuk egiten dituen eta ikuskapen-organismoaren eskutik kualifikazioa lortu duen konfiantzako zerbitzuen egilea.
- **Erregistro Entitateak**, ziurtagirien gakoaren eskatzaileak, harpidedunak eta edukitzaileak identifikatzen dituzten entitateak, ziurtagirietan jasotzen diren inguruabarrak egiaztatzen dituen dokumentazioa ziurtatzen dutenak, eta ziurtagiriak jaulkitzeko, ezeztatzeko eta berritzeko eskaerak baliozkotzen eta onartzen dituztenak.
- **Ziurtagirien erabiltzaileak**.
  - **Ziurtagiriaren eskatzailea**, ziurtagiri oro pertsona batek eskatu behar du, bere izenean edo erakunderen baten izenean.
  - **Sinatzailea**, sinadura sortzeko gailua duen pertsona, eta nor bere izenean edota ordezkatzen duen pertsona fisiko edo juridikoaren izenean jarduten du.
  - **Ziurtagiriaren harpideduna**, ziurtagirian identifikatzen den pertsona fisikoa edo juridikoa.
  - **Gakoaren edukitzailea**, sinadura digitaleko gakoak dituen eta horiek zaintzeaz arduratzen den pertsona fisikoa.



- **Bak** pertsona fisikoak identifikatzeko eta sinatzeko aukera ematen duen bitarteko bat da. Elementu hauek osatzen dute:
  - Erreferentzia-zenbaki bat, erabiltzailearen NANarekin/AIZrekin/pasaportearekin eta pasahitz batekin bat datorrena.
  - Ziurtagiri kualifikatu gabe bat, biltegi zentralizatu batean jaulkitzen dena eta sinadura egintzetarako baliagarria izango dena.
- **BakQ** pertsona fisikoak identifikatzeko eta sinatzeko aukera ematen duen bitarteko bat da. Elementu hauek osatzen dute:
  - Erreferentzia-zenbaki bat, erabiltzailearen NANarekin/AIZrekin bat datorrena.
  - Pasahitz bat.
  - 16 posizioko koordenatu-joko bat edo erabiltzailearen telefono mugikorrera SMS bidez bidaliko den erabilera bakarreko kode bat.
  - Sinadura elektronikoko ziurtagiri kualifikatu bat, Izenperen biltegi zentralizatu batean sortzen dena eta sinadura-egintzetarako baliagarria izango dena.



#### 4 ZIURTAGIRI MOTAK, BALIOZKOTZEKO ETA ERABILTZEKO PROZEDURA

Izenpek jaulkitako ziurtagiri mota bakoitzari dagozkion xehetasunak *Ziurtagiri bakoitzerako berariazko politika* dokumentuan arautzen dira. Dokumentu hori *Ziurtapen Praktiken Deklarazioa* dokumentuarekin batera dator.

##### 4.1 Hierarkia, oinarritzko CA 2007 (CN=Izenpe.com)

HERRITARRA						
Deskribapen laburra	Euskarria	Politikaren identifikatzailea	OID, politika	eIDAS identifikazio-maila		eIDAS sinadura mota
B@K	HSM	NCP	1.3.6.1.4.1.14777.5.2.5	Txikia		Oinarritzkoa
B@KQ	HSM	QCP-n	1.3.6.1.4.1.14777.2.18.3	Handia (txartel birtuala)	Handi samarra (Giltza)	Aurreratua
Herritarren ziurtagiria	Txip kriptografikoa	QCP-n-qscd	eIDAS profila 1.3.6.1.4.1.14777.2.18.1	Handia		Kualifikatua
			eIDAS aurreko profila 1.3.6.1.4.1.14777.2.6	Handia		Kualifikatua
Izenpe mobile	APP edukitzailea	NCP	1.3.6.1.4.1.14777.5.2.5.4	Handi samarra		Ez dago erabilgarri (sinatzeko BaKQarena erabiltzen da)
NQC goitizena	Softwarea	NCP	1.3.6.1.4.1.14777.5.2.7.2	Handi samarra		Aurreratua

ENTITATEAREN ORDEZKARIA						
Deskribapen laburra	Euskarria	Politikaren identifikatzailea	OID, politika	eIDAS identifikazio-maila		eIDAS sinadura mota
Entitatearen ordezkaria	HSM	QCP-n	1.3.6.1.4.1.14777.2.14	Handia (txartel birtuala)	Handi samarra (Giltza)	Aurreratua
	Txip kriptografikoa	QCP-n-qscd	1.3.6.1.4.1.14777.2.12	Handia		Kualifikatua
	Izenperen softwarea - edukitzailea	QCP-n	1.3.6.1.4.1.14777.2.16	Handi samarra		Aurreratua



### NORTASUN JURIDIKORIK GABEKO ENTITATEAREN ORDEZKARIA

Deskribapen laburra	Euskarria	Politikaren identifikatzailea	OID, politika	eIDAS identifikazio-maila		eIDAS sinadura mota
				Handia (txartel birtuala)	Handi samarra (Giltza)	
Nortasun juridikorik gabeko entitatearen ordezkaria	HSM	QCP-n	1.3.6.1.4.1.14777.2.15	Handia (txartel birtuala)	Handi samarra (Giltza)	Aurreratua
	Txip kriptografikoa	QCP-n-qscd	1.3.6.1.4.1.14777.2.13	Handia		Kualifikatua
	Izenperen softwarea - edukitzailea	QCP-n	1.3.6.1.4.1.14777.2.17	Handi samarra		Aurreratua

### PROFESIONALA

Deskribapen laburra	Euskarria	Politikaren identifikatzailea	OID, politika	eIDAS identifikazio-maila		eIDAS sinadura mota
				Handia (txartel birtu.)	Handi sam. (Giltza)	
Entitate publikoko langilea	Txip kriptografikoa	QCP-n-qscd	1.3.6.1.4.1.14777.4.14.1	Handia		Kualifikatua
	Izenperen softwarea - edukitzailea	QCP-n	1.3.6.1.4.1.14777.4.14.2	Handi samarra		Aurreratua
	HSM	QCP-n	1.3.6.1.4.1.14777.4.14.3	Handia (txartel birtu.)	Handi sam. (Giltza)	Aurreratua
Entitate publikoko langilea, goitizena duena	Txip kriptografikoa	QCP-n-qscd	<b>Sinatzea</b> 1.3.6.1.4.1.14777.4.13.1.1	Handia		Kualifikatua
		NCP+	<b>Kautotzea</b> 1.3.6.1.4.1.14777.4.13.1.2	Handia		Ez dago erabilgarri
		Ez dago erabilgarri	<b>Zifratzea</b> 1.3.6.1.4.1.14777.4.13.1.3	Handia		Ez dago erabilgarri
Korporatibo kualifikatua	Txip kriptografikoa	QCP-n-qscd	1.3.6.1.4.1.14777.2.19.1	Handia		Kualifikatua
	Izenperen softwarea - edukitzailea	QCP-n	1.3.6.1.4.1.14777.2.19.2	Handi samarra		Aurreratua
	HSM	QCP-n	1.3.6.1.4.1.14777.2.19.3	Handia (txartel birtu.)	Handi sam. (Giltza)	Aurreratua
Korporatibo kualifikatu gabea	Txip kriptografikoa	NCP+	1.3.6.1.4.1.14777.1.1.1	Ez dago erabilgarri (kualifikatu gabea)		Aurreratua
Entitate publikoetako	Txip	QCP public +	1.3.6.1.4.1.14777.4.1	Ez dago erabilgarri		Onartua



langilea (eIDAS aurrekoa)	kriptografikoa	SSCD			
Eusko Jaurlaritzako langilea (eIDAS aurrekoa)	Txip kriptografikoa	QCP public + SSCD	1.3.6.1.4.1.14777.7.1	Ez dago erabilgarri	Onartua
Korporatibo publiko onartua (eIDAS aurrekoa)	Txip kriptografikoa	QCP public + SSCD	1.3.6.1.4.1.14777.4.2	Ez dago erabilgarri	Onartua
Korporatibo publiko onartu gabea (eIDAS aurrekoa)	Txip kriptografikoa	NCP+	1.3.6.1.4.1.14777.1.1.1	Ez dago erabilgarri	Aurreratua
Korporatibo pribatu onartua (eIDAS aurrekoa)	Txip kriptografikoa	QCP public + SSCD	1.3.6.1.4.1.14777.2.2	Ez dago erabilgarri	Onartua
Korporatibo pribatu onartu gabea (eIDAS aurrekoa)	Txip kriptografikoa	NCP+	1.3.6.1.4.1.14777.5.2.2	Ez dago erabilgarri	Aurreratua

#### ENTITATE-ZIGILUA

Deskribapen laburra	Euskarria	Politikaren identifikatzailea	OID, politika	eIDAS identifikazio-maila	eIDAS sinadura mota
Entitate-zigilua	Izenperen softwarea - edukitzailea	QCP-I	1.3.6.1.4.1.14777.2.11	Handi samarra	Aurreratua
	HSM	QCP-I	1.3.6.1.4.1.14777.2.20	Handi samarra	Aurreratua



ADMINISTRAZIO-ZIGILUA					
Deskribapen laburra	Euskarria	Politikaren identifikatzailea	OID, politika	eIDAS identifikazio-maila	eIDAS sinadura mota
Administrazio-zigilua	Izenperen softwarea - edukitzailea	QCP-I	1.3.6.1.4.1.14777.4.11.2	Handi samarra	Aurreratua
	HSM	QCP-I	1.3.6.1.4.1.14777.4.11.3	Handi samarra	Aurreratua
Erdi-mailako administrazio-zigilua (eIDAS aurrekoa)	HSM	NCP+	1.3.6.1.4.1.14777.4.4	Ez dago erabilgarri	Onartua

ZERBITZARI SEGURUA (SSL/TLS)			
DESKRIBAPEN LABURRA	EUSKARRIA	POLITIKAREN IDENTIFIKATZAILEA	OID, POLITIKA
SSL DV	Softwarea	DVCP	1.3.6.1.4.1.14777.1.2.4
SSL OV	Softwarea	OVCP	1.3.6.1.4.1.14777.1.2.1
SSL EV	Softwarea	EVCP	1.3.6.1.4.1.14777.6.1.1
EGOITZA	Softwarea	OVCP	1.3.6.1.4.1.14777.1.1.3
EGOITZA EV	Softwarea	EVCP	1.3.6.1.4.1.14777.6.1.2
SSL Kualifikatua	Softwarea	EVCP	1.3.6.1.4.1.14777.6.1.3
Egoitza kualifikatua	Softwarea	EVCP	1.3.6.1.4.1.14777.6.1.4

APLIKAZIOA			
DESKRIBAPEN LABURRA	EUSKARRIA	POLITIKAREN IDENTIFIKATZAILEA	OID, POLITIKA
Aplikazioa	Izenperen softwarea - edukitzailea	NCP	1.3.6.1.4.1.14777.1.2.2

KODE-SINADURA			
DESKRIBAPEN LABURRA	EUSKARRIA	POLITIKAREN IDENTIFIKATZAILEA	OID, POLITIKA
Kode-sinadura	Txip kriptografikoa	NCP+	1.3.6.1.4.1.14777.1.3.1



IOT GAILUA			
DESKRIBAPEN LABURRA	EUSKARRIA	POLITIKAREN IDENTIFIKATZAILEA	OID, POLITIKA
Gailua	Softwarea	NCP	1.3.6.1.4.1.14777.1.3.2

#### 4.2 Hierarkia, oinarrizko CA 2020 kualifikatuak (CN=ROOT CA QC IZENPE)

HERRITARRA						
Deskribapen laburra	Euskarria	Politikaren identifikatzailea	OID, politika	eIDAS identifikazio-maila		eIDAS sinadura mota
B@KQ	HSM	QCP-n	1.3.6.1.4.1.14777.8.1.3	Handia (txartel birtu.)	Handi sam. (Giltza)	Aurreratua
Herritarraren ziurtagiria	Txip kriptografikoa	QCP-n-qscd	1.3.6.1.4.1.14777.8.1.1	Handia		Kualifikatua

ENTITATEAREN ORDEZKARIA						
Deskribapen laburra	Euskarria	Politikaren identifikatzailea	OID, politika	eIDAS identifikazio-maila		eIDAS sinadura mota
Entitatearen ordezkaria	HSM	QCP-n	1.3.6.1.4.1.14777.8.3.3	Handia (txartel birtuala)	Handi samarra (Giltza)	Aurreratua
	Txip kriptografikoa	QCP-n-qscd	1.3.6.1.4.1.14777.8.3.1	Handia		Kualifikatua
	Izenperen softwarea - edukitzailea	QCP-n	1.3.6.1.4.1.14777.8.3.2	Handi samarra		Aurreratua



NORTASUN JURIDIKORIK GABEKO ENTITATEAREN ORDEZKARIA						
Deskribapen laburra	Euskarria	Politikaren identifikatzailea	OID, politika	eIDAS identifikazio-maila		eIDAS sinadura mota
Nortasun juridikorik gabeko entitatearen ordezkaria	HSM	QCP-n	1.3.6.1.4.1.14777.8.4.3	Handia (txartel birtuala)	Handi samarra (Giltza)	Aurreratua
	Txip kriptografikoa	QCP-n-qscd	1.3.6.1.4.1.14777.8.4.1	Handia		Kualifikatua
	Izenperen softwarea - edukitzailea	QCP-n	1.3.6.1.4.1.14777.8.4.2	Handi samarra		Aurreratua

PROFESIONALA						
Deskribapen laburra	Euskarria	Politikaren identifikatzailea	OID, politika	eIDAS identifikazio-maila		eIDAS sinadura mota
Entitate publikoko langilea	Txip kriptografikoa	QCP-n-qscd	1.3.6.1.4.1.14777.9.1.1	Handia		Kualifikatua
	Izenperen softwarea - edukitzailea	QCP-n	1.3.6.1.4.1.14777.9.1.2	Handi samarra		Aurreratua
	HSM	QCP-n	1.3.6.1.4.1.14777.9.1.3	Handia (txartel birtu.)	Handi sam. (Giltza)	Aurreratua
Entitate publikoko langilea, goitizena duena	Txip kriptografikoa	QCP-n-qscd	<b>Sinatzea</b> 1.3.6.1.4.1.14777.9.2.1	Handia		Kualifikatua
		NCP+	<b>Kautotzea</b> 1.3.6.1.4.1.14777.9.2.2	Handia		Ez dago erabilgarri
		Ez dago erabilgarri	<b>Zifratzea</b> 1.3.6.1.4.1.14777.9.2.3	Handia		Ez dago erabilgarri
Korporatibo kualifikatua	Txip kriptografikoa	QCP-n-qscd	1.3.6.1.4.1.14777.8.2.1	Handia		Kualifikatua
	Izenperen softwarea - edukitzailea	QCP-n	1.3.6.1.4.1.14777.8.2.2	Handi samarra		Aurreratua
	HSM	QCP-n	1.3.6.1.4.1.14777.8.2.3	Handia (txartel birtu.)	Handi sam. (Giltza)	Aurreratua



ENTITATE-ZIGILUA					
Deskribapen laburra	Euskarria	Politikaren identifikatzailea	OID, politika	eIDAS identifikazio-maila	eIDAS sinadura mota
Entitate-zigilua	Izenperen softwarea - edukitzailea	QCP-I	1.3.6.1.4.1.14777.8.5.2	Handi samarra	Aurreratua
	HSM	QCP-I	1.3.6.1.4.1.14777.8.5.3	Handi samarra	Aurreratua

ADMINISTRAZIO-ZIGILUA					
Deskribapen laburra	Euskarria	Politikaren identifikatzailea	OID, politika	eIDAS identifikazio-maila	eIDAS sinadura mota
Administrazio-zigilua	Izenperen softwarea - edukitzailea	QCP-I	1.3.6.1.4.1.14777.9.3.2	Handi samarra	Aurreratua
	HSM	QCP-I	1.3.6.1.4.1.14777.9.3.3	Handi samarra	Aurreratua

#### 4.3 Hierarkia oinarritzko CA 2020 kualifikatu gabeak (CN= ROOT CA NQC IZENPE)

HERRITARRA					
Deskribapen laburra	Euskarria	Politikaren identifikatzailea	OID, politika	eIDAS identifikazio-maila	eIDAS sinadura mota
B@K	HSM	NCP	1.3.6.1.4.1.14777.11.1.2	Txikia	Oinarritzkoa
Mobile	APP edukitzailea	NCP	1.3.6.1.4.1.14777.11.3.4	Handi samarra	Ez dago erabilgarri (sinatzeko BAKQarena erabiltzen da)
NQC goitizena	Softwarea	NCP	1.3.6.1.4.1.14777.11.2.2	Handi samarra	Aurreratua



PROFESIONALA					
Deskribapen laburra	Euskarria	Politikaren identifikatzailea	OID, politika	eIDAS identifikazio-maila	eIDAS sinadura mota
Profesional kualifikatu gabea	Txip kriptografikoa	NCP+	1.3.6.1.4.1.14777.11.4.2	Ez dago erabilgarri (kualifikatu gabea)	Aurreratua

APLIKAZIOA			
DESKRIBAPEN LABURRA	EUSKARRIA	POLITIKAREN IDENTIFIKATZAILEA	OID, POLITIKA
Aplikazioa	Izenperen softwarea - edukitzailea	NCP	1.3.6.1.4.1.14777.12.1.2

IOT GAILUA			
DESKRIBAPEN LABURRA	EUSKARRIA	POLITIKAREN IDENTIFIKATZAILEA	OID, POLITIKA
Gailua	Softwarea	NCP	1.3.6.1.4.1.14777.12.2.2

BARNEKO ZERBITZARI SEGURUA (SSL/TLS)			
DESKRIBAPEN LABURRA	EUSKARRIA	POLITIKAREN IDENTIFIKATZAILEA	OID, POLITIKA
SSL DV	Softwarea	DVCP	1.3.6.1.4.1.14777.14.1.2

## 5 BALIABIDE ELEKTRONIKOEN ERABILERA

### 5.3 ERABILERA EGOKIAK,

#### – KAUTOTZEA,

Baliabide elektronikoen horiek kautotzeko aukera ematen dute, eta harpideduna edo gakoaren edukitzailea, hala badagokio, administrazio publikoen aurrean modu elektronikoa kautotzeko erabili behar dira —baliabide horiek onartzen dituzten administrazio publikoen aurrean jakina—.

Baliabide hau zerbitzu elektronikoa batean bere burua identifikatzeko erabiltzen denean, Izenpek zerbitzuaz arduratzen den erakundeari kautotzearen emaitza eskainiko dio.



– SINATZEA,

▪ **Pertsona fisikoen edo juridikoen ziurtagiri kualifikatuak**

Sinatzeke eta zigilatzeke ziurtagiri kualifikatuak, dagokion ziurtagiri motan hala definitzen bada, kautotze-mezuak sinatzeko ere erabil daitezke, bereziki SSL edo TLS bezeroen testiguak, S/MIME posta elektronikoko segurua, gako-berreskurapen gabeko zifratzeak eta beste zenbait. Sinadura digital horrek sinadura-ziurtagiriaren harpidedunaren identitatea bermatzen du.

Horrez gain, ziurtagiri horiek sinadura elektronikoko aurreratuen edo kualifikatuen euskarri izan daitezke, egiten diren euskarriaren arabera.

Zigilu elektronikoko ziurtagiriak administrazio publikoen esparruan soilik erabili beharko dira, eta dokumentuak elektronikoki zigilatzeke.

▪ **Ziurtagiri kualifikatu gabeak**

Ziurtagiri kualifikatu gabeek ez dute bermatzen harpidedunaren eta, hala badagokio, gako pribatuaren edukizailearen nortasuna.

Sinatzeke erabiltzen badira, sinadura hori ezin izango da eskuz idatzitako sinadurarekin parekatu.

Ziurtagiri kualifikatuak, dagokion ziurtagiri motan hala definitzen bada, kautotze-mezuak sinatzeko ere erabil daitezke, bereziki SSL edo TLS bezeroen testiguak, S/MIME posta elektronikoko segurua, gako-berreskurapen gabeko zifratzeak eta beste zenbait.

▪ **Aplikazio-ziurtagiriak**

Informatika-aplikazioek erabiltzen dute ziurtagiri hori, eta soilik erabiliko da aplikazioak berak sinatutako mezu edo fitxategien benetakotasuna eta osotasuna bermatzeko.

▪ **IoT gailuko ziurtagiriak**

IoT (Internet of Things) gailuko ziurtagiriak aukera ematen du IoT gailu batek egindako on line komunikazio baten integritatea identifikatzeko eta ziurtatzeko.

▪ **Kode-sinaduraren ziurtagiriak.**

Titular diren entitateei ematen zaie, software horren osagaien baten egiazkotasuna eta osotasuna bermatzeko.

#### 5.4 BALIABIDEEN ERABILERA DEBEKATUAK

- **KAUTOTZEA**, berezkoa duten zereginerako eta ezarritako helbururako erabili behar dira, eta ez beste inongo zeregin eta eginkizunetarako.
- **SINATZEA**, berezkoa duten zereginerako eta ezarritako helbururako eta aplikatzekoa den legeriaren arabera soilik erabili behar dira, eta ez beste inongo zeregin eta eginkizunetarako.

Izenpek jaulkitako ziurtagiriak ezin dira erabili Erregistro Entitate gisa tramiteak egiteko.



Ziurtagiriak ez dira diseinatu egoera arriskutsuetan kontrol-ekipo gisara erabiltzeko edo hutsegiteen aurkako jardueretan erabiltzeko (instalazio nuklearren funtzionamenduan, nabigazio-sistemetan, aireko komunikazioetan, armamentuaren kontrol-sistemetan...). Jarduera horietan, akats batek heriotza, zauriak edo ingurumen-kalte larriak eragin ditzake.



## 6 MUGAK KONFIANTZAN

---

Izenpek ez du bere ziurtagirien konfiantza-muga espezifikorik aplikatzen.

Aurreko atalean kontsulta daitezke ziurtagiri mota bakoitzaren mugak.

Izenpek, konfiantzako zerbitzu-egilea den aldetik, honako elementu hauen barne-erregistroak gordetzen ditu edo elementu horien artxibatze segurua ziurtatzen du:

- Ziurtagiri kualifikatuen bizi-zikloarekin lotzen diren gertakari guztien ebidentziak, jaulki eta hurrengo 15 urteetan.
- Ziurtagiri kualifikatu gabeen bizi-zikloarekin lotzen diren gertakari guztien ebidentziak, iraungitze-dataren hurrengo 7 urteetan.



## 7 BETEBEHARRAK

---

### 7.3 IZENPErenak

#### 7.3.1 BETEBEHAR OROKORRAK

##### Segurtasunekoak

- Erabiltzen diren sistemak eta produktuak fidagarriak izatea, aldaketa ororen aurka babestuta daudenak eta jasaten dituzten ziurtatze-prozesuen segurtasun teknikoak eta, hala badagokio, kriptografikoak bermatzen dutenak, betiere Segurtasun Politikari jarraituz.
- Baliabideen faltsifikazioaren aurkako neurriak hartzea eta konfidentzialtasuna bermatzea baliabidea sortzeko datuen eratze-prozesuan. Gainera, sinatzaileari prozedura seguru baten bidez ematea.
- Sistema fidagarriak erabiltzea ziurtagiri kualifikatuak biltegitzeko. Sistema horiek ziurtagiriak kautotzeko aukera eman behar dute, eta baimendurik gabeko pertsonak datuak aldatu ahal izatea saihestu beharko dute. Sinatzaileak aditzera eman dituen pertsonak —eta kasu jakin batzuetan, soilik— sartu ahal izango dira datu horietara, eta hala bermatu behar du sistema horrek. Gainera, segurtasun-baldintzetan eragina izan dezakeen edozein aldaketa antzeman beharko dute sistema horiek.
- Segurtasuna aldian behin egiaztatzea, ezarritako estandarrekiko adostasuna ziurtatzearen.
- Segurtasunaren kudeaketa egokia, Informazioaren Segurtasuna Kudeatzeko Sistema ezartzeari esker, betiere ISO/IEC 27001 arauak ezarritako printzipioen arabera. Honako neurri hauek, besteak beste, hartu dira aintzat:
  - Segurtasun-gertakarien kudeaketa osoa gauzatzea, gertakari horiek hauteman, ebatzi eta optimizatu direla bermatzearen.
  - Segurtasunaren arloan interes berezia duten taldeekin harreman egokiak izatea, hala nola adituekin, segurtasun-foroekin, eta informazioaren segurtasunaren arloko elkargo profesionalekin.
  - Sistemen mantentze-lana eta bilakaera behar bezala planifikatzea, erabiltzaileen eta bezeroen iguripenak berme osoz beteko dituen zerbitzua eta etekin egokia ziurtatzearen.
- Gordetzeko zerbitzuaren hornitzaileei segurtasuneko araudia eta estandarrak bete ditzaten eskatzea (datu pertsonalak babesteari buruzko araudi orokorra, ISO, ETSI, CABForum eta Izenperen segurtasun-politika).

##### Langileak

- Eskaintzen diren zerbitzuak egiteko behar adinako kualifikazioa, ezagutzak eta esperientzia duten langileak erabiltzea, baita sinadura elektronikoaren esparruko segurtasuneko eta kudeaketako prozedura egokiak ere.
- Segurtasuneko araudia eta estandarrak betetzea (datu pertsonalak babesteari buruzko araudi orokorra, ISO, ETSI eta Izenperen segurtasun-politika).



### Prozedura

- Identifikatzeko eta/edo sinatzeko baliabidea jaulki eta eman aurretik, Izenpek baliabide hori erabiltzeko terminoen eta baldintzen berri ematen du, baita baliabide horren prezioaren (ezartzen denean), erabiltzeko mugen eta Ziurtapen Praktiken Deklarazioan aipatzen diren tresna juridiko lotesleen berri ere.
- Izenpek badu jarduera eteteko amaiera-plan bat, eta, bertan, zehazten da etete hori zein baldintzatan egingo litzatekeen.
- Izenpek gakoan edukitzaileari haren ziurtagiriaren indarraldia iraungitzearen berri eman beharko dio, ziurtagiriaren indarraldia amaitu edo eten aurretik edo aldi berean, eta ziurtagiria indarrak gabe geratzearen arrazoiak zehaztuko dizkio, baita data eta ordua ere.

#### 7.3.2 IDENTIFIKAZIOKO BALIABIDE ELEKTRONIKOAK JAULKITZEN DITUEN ENTITATEA DEN ALDETIK,

- eIDASean definitutako ziurtapen-mailen arabera identifikatuko du erabiltzailea.
- Identifikazio-datuen osagarritasuna bermatuko du.
- Erabiltzaileak berau identifikatzeko aukera emango duten elementuak dauzkala ziurtatuko du.
- Indarrean dagoen legeriak eskatzen dituen betekizun teknikoak eta pertsonalak beteko ditu.
- Identifikatzeko baliabidea jaulki eta eman aurretik, baliabide hori erabiltzeko terminoen eta baldintzen berri emango du, baita baliabide horren prezioaren (ezartzen denean), erabiltzeko mugen eta tresna juridiko lotesleen berri ere.
- Izenpek edonork erabiltzeko ziurtagiriaren baliozkotasuna egiaztatzeko bitarteko publikoak eskaintzen ditu Ziurtapen Praktiken Deklarazioan deskribatzen diren sistemen bidez.
- Izenpek identifikazio-baliabideen baliozkotasuna egiaztatzeko kautotze-bitartekoak eskainiko ditu.

#### 7.3.3 SINADURAKO BALIABIDE ELEKTRONIKOAK JAULKITZEN DITUEN ENTITATEA DEN ALDETIK,

- Zerbitzua egiteko betebeharrak

Izenpek Ziurtapen Praktiken Deklarazioaren arabera ematen ditu ziurtapen-zerbitzuak, horrek zehazten baititu bere zereginak, jarduteko prozedurak eta segurtasun-neurriak. Bereziki, dagozkion betebeharrak guztiak betetzeko ardura bere gain hartzen du, erregistro-entitateak praktika horietan berariaz egiten dituenak izan ezik, baldin eta erregistro-entitate gisa jarduten ez badu.

Ziurtapen-entitatearen betebeharrak honako hauek dira:

- Zerbitzuak egin zaizkion pertsonaren sinadura sortzeko datuak ez kopiatzea.



- Egindako ziurtagiriak adieraziko dituen eta ziurtagiri horiek indarrean dauden edo indarraldia eten edo iraungi den adieraziko duen sistema mantentzea.
  - Ziurtagiri kualifikatuei eta unean une indarrean dauden ziurtapen-praktiketako deklarazioei buruzko informazio eta dokumentazio guztia edozein baliabide seguru bidez erregistratzea, gutxienez 15 urtez, egiten diren unetik bertatik kontatzen hasita. Hortaz, egiten diren sinadurak eta gainerako ziurtagiriei dagozkienak 7 urtez egiaztatu ahal izango dira.
  - Sinatzaileak sinadura sortzeko datuak dituela ziurtatzea —ziurtagirian jasoarazten diren egiaztatzeari dagozkion datuak—.
  - Sinadura sortzeko eta egiaztatzeko datuen osagarritasuna bermatzea, betiere biak ziurtapen-zerbitzuen egileak sortu baditu. Baita ziurtagirian agertzen den identitatea ziurtagirian agertzen den gako publikoari dagokiola ere, era unibokoan.
  - Zerbitzua bizkor eta modu seguruan eskaintzea. Bereziki, ziurtagirien baliozkotasuna kontsultatzeko zerbitzu bizkorra, segurua eta doakoa erabiltzeko aukera ematen du, eta ziurtagiriak modu seguruan eta berehala iraungiko badira, horren berri emango duela bermatzen du, Ziurtapen Praktiken Deklarazioak aurreikusten duenarekin bat etorritik. Zerbitzua eguneko 24 orduetan erabil daiteke, asteko 7 egunetan.
  - Sinadura elektronikoen arloan indarrean dagoen legeriak finkatzen dituen eskakizun teknikoak eta langileei buruzkoak betetzea:
  - Ziurtapen-zerbitzuak egiteko beharrezko fidagarritasuna frogatzea.
  - Ziurtagiri bat jaulki edo bere indarraldia amaitu den eguna eta ordua zehaztasunez adierazi ahal izan dadin bermatzea.
- Ziurtapen-zerbitzuaren arautze juridikoari buruzko betebeharrak.
- Izenpek bere gain hartzen ditu ziurtagirian ageri diren betebeharrak guztiak, baita beste batzuen erreferentzia gisara hartutakoak ere. Erreferentzia bidez jasotzeko, objektu-identifikatzailea edo dokumentuari lotzeko beste bideren bat erantsi behar zaio ziurtagiriari.
  - Izenpe eta eskatzailea, harpideduna edo gakoaren edukitzailea lotzen dituen tresna juridikoa, baita ziurtagirian konfiantza duen hirugarrena ere, hizkuntza idatzian eta ulergarrian jasota dago.
  - Ziurtapen Praktiken Deklarazioan ezarritakoa betetzeko aginduak.
  - Zein Ziurtapen Praktiken Deklarazio den aplikagarri adierazi behar du, eta, hala badagokio, zehaztu behar du ziurtagiriak salgai daudela eta sinadura sortzeko nahiz mezuak deszifratzeko gailu segurua erabili behar dela.
  - Gako pribatuak jaulkitzeko, ezeztatzeko eta, hala badagokio, berreskuratzeko bete beharreko klausulak.
  - Ziurtagirian dagoen informazioa zuzena dela adierazi behar du, harpidedunak kontrakoa jakinarazten ez badu behintzat.
  - Sinadura sortzeko gailu segurua hornitzeko erabilitako informazioa biltegitzeko baimena, betiere harpideduna erregistratzeko, gailu kriptografikoa hornitzeko eta



informazio hori beste batzuei uzteko, baldin eta Izenperen eragiketak baliozko ziurtagiriak ezeztatu gabe amaitzen badira.

- Ziurtagiria erabiltzeko mugak.
- Ziurtagiriak nola baliozkotu jakiteko informazioa, ziurtagiriaren egoera egiaztatzea barne dela, baita ziurtagirian dezenteko konfiantza izateko baldintzei buruzkoa ere.
- Aplikagarri diren erantzukizun-mugak, barne direla Izenpek bere erantzukizuna onartzen edo baztertzen duen erabilerak.
- Ziurtagiri-eskaerei buruzko informazioa zenbat denboraz eduki behar den artxibatuta.
- Ikuskaritza-erregistroak zenbat denboraz eduki behar diren artxibatuta.
- Auziak konpontzeko aplikagarri diren prozedurak.
- Aplikagarri den legea eta eskumena duen jurisdikzioa.
- Izenpe entitate publikoren baten edo batzuen ziurtapen-politikekiko bateragarri aitortu duten, eta, hala badagokio, zein sistemaren arabera.
- Izenperen ondare-erantzukizuna bermatzeko era.

#### 7.4 ERREGISTRO-ENTITATEA

Honako betebeharrak hauek hartzen ditu bere gain erregistro-entitateak:

- Eskatzailearen, harpidedunaren eta gakoaren edukitzailearen nortasuna eta beste zenbait datu pertsonal egiaztatzea —identifikazio-baliabideen xedeetarako garrantzizkoak direnak edo horietan daudenak—, prozedura hauen arabera.
- Horiei buruzko dokumentazio eta informazio guztia gordetzea —horiek jaulkitzea, berritzea, ezeztatzea edo berraktibatzea kudeatzen du—.
- Izenperi garaz jakinaraztea azkar eta modu fidagarrian ezeztatzeko eskaeren berri.
- Izenperi artxiboak erabiltzen uztea, baita jardueretarako erabiltzen diren prozeduren eta horretarako behar den informazioaren mantentze-lanen ikuskapena egiten ere.
- Izenperi ematea baliabideak jaulki, berritu edo berraktibatze eskaeren berri, baita hark jaulkitzen dituen baliabideei buruzko beste zeinahi alderdiren berri ere.
- Garaiz begiratzea baliabideen iraunaldian eragina izan dezaketen ezeztatzeko zergatiak.
- Baliabideak jaulki, berritu eta ezeztatzeko Izenpek ezarritako prozedurak eta gai horretaz indarrean dagoen legeriak agindutakoa betetzea.
- Beharrezkoa izanez gero, bere gain hartu ahal izango du eginkizun hau ere bai: gakoaren edukitzailearen esku jartzea sinadura (gako pribatua) sortzeko eta sinadura elektronikoa (gako publikoa) egiaztatzeko prozedura teknikoak.

#### 7.5 ZIURTAGIRIAREN HARPIDEDUNAREN BETEBEHARRAK

- Informazio osoa eta egokia ematea Izenperi, Ziurtapen Praktiken Deklarazioko eskakizunen arabera, erregistro-prozedurari dagokionez batez ere.



- Ziurtagiriak erabiltzeko baldintzak jakitea eta onartzea, baita haiei egiten zaizkien aldaketak ere.
- Ziurtagiriren bat jaulki eta eman aurretik, horretarako onarpena ematea.
- Ziurtagirien euskarriak ongi erabili eta gordeko direla bermatzea.
- Ziurtagiria egokiro erabiltzea, eta, zehazki, ziurtagirien erabilera-mugak aintzat hartzea.
- Arretaz zaintzea kredentzialak, baimendu gabeko erabilerak saihestearren, Ziurtapen Praktiken Deklarazioak agintzen duenaren arabera.
- Izenperi eta harpidedunak ustez ziurtagirian konfiantza duen edonori honako hau jakinaraztea, justifikatzerik ez dagoen atzerapenik gabe:
  - Kredentzialak galdu, norbaitek ostu edo arriskuan jarri izana.
  - Ziurtagiriaren edukian dauden okerrak edo izandako aldaketak (harpidedunak dakizkienak edo jakin litzakeenak). Aldaketak ziurtagiria ezeztatzea badakar, horretarako eskaera egin behar du harpidedunak.
- Baliozkotasun-aldia amaitu ondoren, identifikazio-baliabidea erabiltzeari uztea.
- Gakoen edukitzaileei jakinaraztea zein betebeharrak dagokien.
- Ziurtagiri-zerbitzuen ezartze teknikoak ez kontrolatzea, manipulatuzea edo atzeranzko ingeniarietako ekintzarik ez egitea, aurrez Ziurtapen Entitatearen idatzizko baimenik eduki gabe.
- Ziurtagiri-zerbitzuen segurtasuna arriskuan nahita ez jartzea.
- Ziurtagirietako gako publikoei dagozkien gako pribatuak ez erabiltzea inongo ziurtagiri izenpetzeko, ziurtapen-entitatea balitz bezala.

Ziurtagiriaren harpidedunak [www.izenpe.eus](http://www.izenpe.eus) web-orrian argitaratutako Ziurtapen Praktiken Deklarazioaren baldintzak onartzen ditu, baita dagokion ziurtapen-politika ere; [ww.izenpe.eus](http://ww.izenpe.eus); web-gunean eskuragarri daude biak.

## 7.6 ZIURTAGIRIEN ERABILTZAILE EGIAZTATZAILEAREN BETEBEHARRAK

Ziurtagirien erabiltzaile egiaztatzaileak honako betebeharrak hauek ditu:

- Eman nahi zaion erabilerarako ziurtagiria egokia den ala ez jakiteko, informazioa iturri independenteetatik jasotzea.
- Ziurtagiriak erabiltzeko baldintzak ezagutzea, Ziurtapen Praktiken Deklarazioan aurreikusitakoaren arabera.
- Emandako ziurtagirien baliozkotasuna edo ezeztapena egiaztatzea, eta, horretarako, ziurtagirien egoerari buruzko informazioa erabiltzea.
- Ziurtagirien hierarkiako ziurtagiri guztiak egiaztatzea, sinadura digitalean edo hierarkiako ziurtagiriren batean konfiantza jarri baino lehen.
- Kontuan izatea ziurtagiria erabiltzeko dauden mugak, nonahi daudelarik ere: ziurtagirian bertan nahiz egiaztatzailearen kontratuan.



- Kontuan izatea kontratuan edo beste nonbait finkatutako badaezpadako neurri guztiak, haren izaera juridikoa edozein delarik ere.
- Ziurtagiriari buruzko gertaera edo egoera irregular guztiak jakinaraztea, ziurtagiria ezeztatzeke arrazoia izan daitezkeenak.
- Ziurtagiri-zerbitzuen ezartze teknikoak ez kontrolatzea, manipulatzeko edo atzeranzko ingeniarietarako ekintzarik ez egitea, aurrez Izenperen idatzizko baimenik gabe.
- Ziurtagiri-zerbitzuen segurtasuna arriskuan nahita ez jartzea.
- Sinadura sortzeko gailu seguruetan jaulkitako ziurtagiri kualifikatuen erabiltzailea behartuta dago aitortzera —dagokion tresna juridikoan— sinadura elektronikoko horiek eskuz idatzitako sinaduren baliokideak direla, eIDAS arauaren arabera.



## 8 ERANTZUKIZUNAK

---

### 8.3 ZIURTAPEN-AGINTARITZAREN ERANTZUKIZUNAK

Izenpek bere gain hartuko ditu,

- Ziurtagirien indarraldiari buruzko edota ziurtagirien indarraldia iraungitzeari buruzko kontsulta-zerbitzuan ez sartzeak edo atzerapenez sartzeak pertsona edo erakunde bati sortzen zaizkion kalteak eta galerak.
- Identifikazio-bitartekoaren baliozkotasuna egiaztatzeko zerbitzuan barnean hartu ez izateagatik edo atzerapenez barnean hartzeagatik edonori eragiten zaizkion kalteak eta galerak.
- Era berean, ziurtapen-zerbitzuak egiteko beharrezko funtzioak hirugarren batzuen esku uzten dituenean, bere gain hartuko du pertsona horien jardunaren ondorioz hirugarren pertsonen aurrean sor daitezkeen edozein erantzukizun. Ildo horretan, erantzukizun zibileko aseguruia eratu da, ziurtagirien erabilerak eragin ditzakeen kalteen eta galeren erantzukizun-arriskuari aurre egiteko.

Izenpek egindako ziurtapen-zerbitzuetan arduragabekeriarengatik edo behar adinako ardurarik izan ez delako erantzungo du, baita sinadura elektronikoari buruzko legerian ezartzen diren betebeharrak betetzen ez direnean ere. Hauek eragindako kalteetan izan ezik:

- Ziurtagirietako informazioek eragindakoak, betiere haien edukiak funtsean Ziurtapen Praktiken Deklarazioa betetzen badu.
- Ziurtagirien eraginkortasuna agortzearen ondoriozkoak, betiere Ziurtapen Praktiken Deklarazioan aurreikusitako argitalpen-betebeharrak betetzen baditu.
- Identifikazio-baliabideak desegoki erabiltzearen edo gero ezeztatzearen ondoriozkoak.
- Izenpe ez da sor daitezkeen kalte zuzen edo zeharkakoen, berezien, intzidentziazkoen eta emergenteen erantzule izango, ezta eskuratu gabeko irabazien, datu-galeren eta zigorkalteen erantzule ere —aurreikusteko modukoak izan edo ez—, baldin eta horiek ziurtagirien, sinadura digitalen edo Ziurtapen Praktiken Deklarazioan eskaintzen edo aurreikusten den bestelako edozein transakzio edo zerbitzuren erabilera, entrega, baimen, funtzionamendu edo funtzionamendu ezarekin lotuta badaude eta behar ez bezalako erabilerak eragin baditu.
- Ziurtagirian ageri diren datuen zehaztapen-ezagatik harpidedunari edo fede oneko hirugarren pertsonari eragindakoak, baldin eta datu horiek dokumentu publiko baten bidez (notaritzakoa, judiziala edo administratiboa) ziurtatu badira, Erregistro Entitateak eman duen dokumentu bidez denean izan ezik.

Izenpe ez da ziurtagiriez fidatzen diren harpidedunek edo hirugarren pertsonak dituzten betebeharrak ez betetzeagatik harpidedunari edo fede oneko hirugarren pertsonari eragindako kalteen erantzule izango.

### 8.4 ERREGISTRO-AGINTARITZAREN ERANTZUKIZUNAK



Izenpe ez den eta erregistro-entitate gisara aritzen den erakunde oro erantzule izango da, Izenperen aurrean, bere gain hartutako eginkizunek eragiten dituzten kalteengatik, dagokion legetresnak finkatzen duenaren arabera.

#### 8.5 IDENTIFIKAZIO-BALIABIDEAREN TITULARRAREN ERANTZUKIZUNAK

- Erregistro-prozesuan egindako errore faktikoaren edo faltsutasunaren ondoriozkoetan.
- Baimenik gabeko pertsonetikiko komunikazio elektronikoetan identifikazio-baliabidea erabiltzearen ondoriozkoetan.
- Identifikazio-baliabidearekin lotzen den sekretua gordetzeko agindua eta hori ez galtzeko, inork ez jakiteko, ez aldatzeko edo baimenik gabe ez erabiltzeko agindua ez betetzearen ondoriozkoetan.

#### 8.6 HARPIDEDUNAREN ERANTZUKIZUNAK

Bere gako pribatuarekin sortutako sinadura digital baten bidez kautotutako komunikazio elektroniko guztien erantzule izango da harpideduna, baldin eta Izenperen egiaztapen-zerbitzuek ziurtagiria baliozkoa dela egiaztatzen badute.

Ziurtagiria galdu egin dela edo lapurtu egin dutela jakinarazten ez den bitartean –Ziurtapen Praktiken Deklarazioan agintzen duen legez–, harpidedunari dagokio ziurtagiriak baimenik gabe eta/edo era desegokian erabiltzearen erantzukizuna.

Ziurtagiriak onartzearekin batera, erantzukizun hau hartzen du bere gain harpidedunak: kalte guztietatik salbu uztekoa eta, hala badagokio, kalte-ordainak ordaintzekoa Izenperi, erregistro-entitateei, eta entitate erabiltzaileei kalteak, galerak, zorrak, gastu prozesalak edo zeinahi bestelakoak eragiten dituzten ekintzengatik edo ez-egiteengatik, barne direla Izenperi, erregistro-entitateei, edo entitate erabiltzaileei ziurtagiriak erabiltzeagatik edo argitaratzeagatik dagozkien ordainsariak. Honako arrazoi hauek eragin dezakete aipatutako erantzukizuna:

- Ziurtapen-entitatearekin lotzen duen tresna juridikoaren aginduak ez betetzeak.
- Baimendu gabeko jendearekiko komunikazio elektronikoetan ziurtagiri digitalak erabiltzeak.
- Harpidedunak datuak faltsutzeak edo akats faktikoak egiteak.
- Zabarkeriagatik edo Izenpe entitate publiko erabiltzaileak edo harpidedunaren ziurtagirian konfiantza eduki dezaketen hirugarrenak engainatzeko asmoz ziurtagirietan funtsezko datuak ez jartzeak.
- Gako pribatuak gordetzeko eta horiek ez galtzeko, inork ez jakiteko, ez aldatzeko edo baimenik gabe ez erabiltzeko agindua ez betetzeak.

Ildo horretan, Izenpe ez da izango harpidedunaren berezko betekizun hauek ez betetzeak harpidedunari edo fede oneko hirugarren pertsoneri eragindako kalteen erantzule:



- Izenperi edo erregistro-entitateari egiazko informazio osoa eta zehatza ematea, ziurtagirian jarri beharreko edo hura jaulki edo ezeztatzeko behar diren datuei buruz, baldin eta zerbitzu-egileak ezin izan badu datuen zehaztasun-eza antzeman.
- Ahalik eta azkarren ematea Izenperi edo erregistro-entitateari ziurtagirian dauden inguruabarren aldaketa ororen berri.
- Arretaz gordetzea sinadura sortzeko datuak, horien konfidentzialtasuna bermatzeko eta horietara inor ez sartzeko edo inork datuak ez ezagutarazteko.
- Ziurtagiria ezeztatzen bada eskatzea, sinadura sortzeko datuen konfidentzialtasunaz zalantzak egonez gero.
- Sinadura sortzeko datuak ez erabiltzea, ziurtagiriaren balio-epea agortu edo zerbitzu-egileak baliogabetzearen berri eman ondoren.
- Ziurtagirian jasotzen diren erabilpen-mugak aintzat hartzea, eta ziurtapen-zerbitzuen sinatzaileari jakinarazitako eta finkatutako baldintzen arabera erabiltzea.

#### 8.7 ZIURTAGIRIETAN KONFIANTZA DUTEN HIRUGARRENEN ERANTZUKIZUNAK

Ziurtagiri baliogabeaz edo egiaztatu gabeko sinadura digitalaz fidatzen den hirugarrenak bere gain hartzen ditu horri loturiko arrisku guztiak, eta ez dauka inongo erantzukizunik eskatzerik Izenperi, erregistro-entitateei, entitate erabiltzaileei edo harpidedunei, ziurtagiri eta sinadura horiez fidatzeak eragindako gorabeherengatik.

Izenpek ez du erantzukizunik izango harpidedunari edo fede oneko hirugarrenei eragindako kalteengatik, baldin eta sinatutako dokumentuen hartzaileak ez badu betetzen honako arreta-betekizun hauetakoren bat:

- Egiaztatzea eta kontuan hartzea ziurtagirian agertzen diren murrizketak, haren balizko erabilerei dagokienez eta harekin egin daitezkeen transakzioen banakako zenbatekoari dagokienez.
- Ziurtagiriaren baliozkotasuna egiaztatzea.



## 9 APLIKATZEKOAK DIREN AKORDIOAK, ZIURTAPEN PRAKTIKEN DEKLARAZIOA ETA ZIURTAPEN-POLITIKAK

---

Aplikatzekoak diren akordio, Ziurtapen Praktiken Deklarazio eta politika guztiak [www.izenpe.eus](http://www.izenpe.eus) web-gunean daude.

## 10 ITZULTZEKO POLITIKAK

---

Izenpek ez du itzultzeko politikarik, eta arlo horretan indarrean dagoen legeriari lotuko zaio.

## 11 DATU PERTSONALAK BABESTEAK

---

Izenpek egiten duen datu pertsonalen tratamenduari aplikatu dakiokeen erregimena da EUROPAKO PARLAMENTUAREN ETA KONTSEILUAREN 2016/679 ARAUDIAN eta hura garatzeko araudian aurreikusten den erregimena eta aplikatzeko den bestelako araudian aurreikusten dena — 2016/679 ARAUDIA (EB), EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA, 2016ko apirilaren 27koa, pertsona fisikoaren babesari buruzkoa, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio libreari dagokionez. Araudi horrek 95/46/EE Zuzentaraua (datuen babeserako araudi orokorra) indargabetzen du—.

Izenpek tratamenduei buruzko informazioa du [www.izenpe.eus/datos](http://www.izenpe.eus/datos) helbidean.

## 12 APLIKATZEKO DEN LEGERIA. GATAZKAK EBAZTEKO MEKANISMOAK

---

### 12.1 Aplikatzekoa den araudia

Ziurtapen Praktiken Deklarazio hau gauzatzeari, egiteari, interpretatzeari eta baliozkotzeari dagozkien alor guztietan aplikatu behar da sinadura elektronikoari buruzko Espainiako legeria. Honako hau da dokumentu honi eta ondoriozko eragiketei aplikatu dakiekeen araudia:

- Sinadura elektronikoari buruzko abenduaren 19ko 59/2003 Legea.
- Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 39/2015 Legea.
- Sektore Publikoaren Erregimen Juridikoari buruzko 40/2015 Legea.
- EUROPAKO PARLAMENTUAREN ETA KONTSEILUAREN 2016/679 ARAUDIA, 2016ko apirilaren 27koa, pertsona fisikoaren babesari buruzkoa, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio libreari dagokionez. Araudi horrek 95/46 Zuzentaraua indargabetzen du.
- 910/2104 Europako Araudia, identifikazio elektronikoari eta barne-merkatuko transakzio elektronikoetarako konfiantzako zerbitzuei buruzkoa (eIDAS).

### 12.2 Erreklamazioak eta auzien ebazpena

Izenpek kontsumoko artekaritza-sistemaren kontrolpean dihardu, aplikagarri zaion legeriak aurreikusten duenaren arabera. Hala, eskatzaileen edo harpidedunen kexuak edo erreklamazioak



artatu eta ebatziko ditu, eta hartzen duen erabakia loteslea eta betearazlea izango da alde bientzat, herritarren ziurtagiriei dagokienez betiere.

Xede horretarako, eskatzaileak edo harpidedunak sistema hori onartzen duela joko da dagokion Kontsumoko Artekaritza Batzordean artekaritza-eskaera formalizatzen duen une beretik.

Kontsumoko artekaritza-sistematik at dauden herritarren ziurtagirien esparruan eskatzaileengandik edo harpidedunengandik sor daitekeen beste edozein auzi dagokion jurisdikzioaren esku geratuko da.

### 13 AUDITORIAK, ZIURTAPENAK ETA ZIURTAPEN-AGINTARITZEN ETA BILTEGIEN KONFIANTZAKO ZIGILUAK

---

Zerbitzuak eraginkortasunez garatzeko eta ezartzeko helburuarekin, Izenpek informazioaren segurtasuna kudeatzeko sistema ezarri du konfiantza-zerbitzuekin lotzen diren prozesuetarako, betiere ISO 27001 estandarren arabera.

Izenpek ETSIaren (Telekomunikazioetako Estandarren Europako Institutuaren) estandarren adierazpenak jarraitzen ditu, eta honako hiru arau hauen zehaztapen teknikoaren arabera lotu du ziurtapena: ziurtagiri kualifikatuak jaulkitzeko EN 319 411-2 arauaren zehaztapen teknikoaren arabera; gako publikoko ziurtagiriak jaulkitzeko EN 319 411-1 arauaren zehaztapen teknikoaren arabera; eta denbora-zigiluak jaulkitzeko EN 319 422 arauaren arabera. Identifikazio elektronikoari eta barne-merkatuko transakzio elektronikoetarako konfiantzako zerbitzuei buruzko 910/2104 Europako araudiak (eIDAS) eskatzen dituen arauak dira.

Baliozkotze hedatuko ziurtagirien politikari (EVCP) jarraitzen dioten zerbitzari seguruko ziurtagirietarako, erakundearen baliozkotze-politikari (OVCP) jarraitzen dioten zerbitzari seguruko ziurtagirietarako eta domeinuaren baliozkotze-politikari (DVCP) jarraitzen dioten zerbitzari seguruko ziurtagirietarako, CA/Browser Forum-ek onartutako gidei ere jarraituko zaie ([www.cabforum.org](http://www.cabforum.org) web-gunean daude eskuragarri).

Ziurtapen guztiak kontsulta daitezke [www.izenpe.eus](http://www.izenpe.eus) web-gunean.



## 14 BERTSIOEN KONTROLA

### 14.3 Aldaketen kontrola \_1.0 bertsioa

Eskakizun osagarriak	➤ 1999/93/EE Zuzentaraua indargabetzen duen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren identifikazio elektronikoari eta barne-merkatuko transakzio elektronikoetarako konfiantzako zerbitzuei buruzko uztailaren 23ko 910/2014 Araudira egokitzea.
Eskakizun eguneratuak	
Argibideak	
Editoriala	
Ezabatutako eskakizunak	➤ Erabiltzeko baldintzak. ➤ Harpidedunaren kontratua.

### 14.4 Aldaketen kontrola \_1.0 bertsiotik 1.1 bertsiora

Aurreko bertsioarekiko eguneratzeak	➤ Dokumentuaren izena eguneratzea. ➤ 2. atala, definizioei buruzko berariazko atala gehitu da. ➤ 3. atala, identifikazio-baliabideak arreta gisa eta sinadura gisa erabiltzea bereizi da. ➤ 4. atala, aldeen betebeharren beste sailkapen bat txertatu da. ➤ 5. atala, ziurtapen-agintaritzaren erantzukizunak eguneratu dira.
Argibideak	
Formatua eguneratzea	
Ezabatzeak	➤ 2. atala, ezabatu da ziurtagiri motei eta horiek jaulkitzen diren euskarriei buruzko 2. atala.

### 14.5 Aldaketen kontrola \_1.1 bertsiotik 1.2 bertsiora



Aurreko bertsioarekiko eguneratzeak	
Argibideak	➤ Ziurtagiriaren harpidedunaren betebeharreari buruzko 4.3. atalean politika betetzearen argibidea erantsi da.
Formatua eguneratzea	
Ezabatzeak	

#### 14.6 Aldaketen kontrola\_1.2 bertsiotik 2.0 bertsiora

Aurreko bertsioarekiko eguneratzeak	➤ Erabiltzaileak identifikazio-baliabideen erabilerarako terminoei eta baldintzei buruzko informazioa erraz lortzeko helburuarekin, dokumentu bakarrean bildu dira PKI dibulgatzeko akordioa (PDS), 1.0 bertsioa, eta kautotze eta sinadurarako baliabide elektronikoak erabiltzeko terminoei eta baldintzei buruzko dokumentua, 1.2 bertsioa.
Argibideak	
Formatua eguneratzea	
Ezabatzeak	

#### 14.7 Aldaketen kontrola\_2.0. bertsiotik 2.1. bertsiora

Aurreko bertsioarekiko eguneratzeak	➤ Profil korporatiboaren eIDAS maila zuzendu da edukitzailean ➤ Gailu-profila erantsi da
Argibideak	
Formatua eguneratzea	
Ezabatzeak	

#### 14.8 Aldaketen kontrola\_2.1 bertsiotik 2.2 bertsiora

Aurreko bertsioarekiko	➤ 4. Ziurtagiri motak, baliozkotzeko eta erabiltzeko prozedura epigrafea eguneratzea: <i>herritarraren ziurtagiri aitortu</i>
------------------------	---



eguneratzeak	<i>gabeari</i> dagozkion zehaztasunak barnean hartzea.
Argibideak	
Ezabatzeak	➤ 3. epigrafea. Definizioak: Bak eta BakQ ziurtagirien definizioa, bi identifikazio-baliabide horiek kautotzeko beste <b>faktore biometriko</b> batzuekin osatzeko aukera ezabatu da, hala nola hatz-markarekin edo aurpegia ezagutzearekin osatzeko aukera.

#### 14.9 Aldaketen kontrola\_2.1 bertsiotik 2.2 bertsiora


#### 14.10 Aldaketen kontrola\_2.3 bertsiotik 2.4 bertsiora

Harremanetarako datuak	Harremanetarako telefonoa eta helbide elektronikoa eguneratu da
Ziurtagiri motak, baliozkotzeko eta erabiltzeko prozedura	Profil bakoitzean eIDAS sinadura motaren zutabea erantsi da IoT gailuaren, Mobilaren eta NQC goitzenaren profilak erantsi dira
<b>Erabilera egokiak</b>	IoT gailuko eta aplikazioko ziurtagirietan sinadura-erabileraren deskribapena erantsi da
Betebehar orokorrak	Argitalpen-zerbitzuaren erreferentzia ezabatu da Hornitzaileen Segurtasun Politika betetzeko betebeharrak erantsi da
Ziurtapen-agintaritzaren erantzukizunak	Erantzukizun Zibilaren Aseguruaren zenbatekoa ezabatu da

#### 14.11 Aldaketen kontrola\_2.4 bertsiotik 2.5 bertsiora

--	--



Aurreko bertsioarekiko  
eguneratzeak

- BakQ-aren definizioa eguneratu da.
- Oinarrizko CA berrien politikak erantsi dira